

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

323 - 2024ko APIRILA

HARRO HERRI,
KORRIKA!



POSTONTZIA

- ✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?
- ✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: mailope@labrit.net / 638 652 339.

ZUZEN ETA JATOR

*Langilegoa ala langileria?

Azken hamarkada hauetan, tradizioan izan ez duen gehiegizko balio multzokaria eman zaio -go atzikiari. Euskaltzaindiaren arabera, euskaraz askotan ez dago izen multzokariaren beharrik, nahikoa da plurala erabiltzea:

- ▶ Ikastetxe honetako irakasle eta ikasleak (ez ***irakaslego** edo ***ikaslego**).
- ▶ Nafarroako biztanleak (ez ***biztanlegoa**).
- ▶ Gure eskualdeko langileak (ez ***langilegoa**).

Beste hauek ere, beraz, ez dira egokiak multzoa adierazteko: ***irakurlegoa** (irakurleak), ***entzulegoa** (entzuleak), ***ikuslegoa** (ikusleak), ***euskaldungoa** (euskaldunak)...

Multzokaria beharrezkoa denean, -eria atzikia da erabiltzekoa: langileria, gazteria, biztanleria, ikasleria, irakurleria, tresneria...

Noiz erabiliko dugu -go atzikia? Bi zentzu hauetakoren bat ematen zaionean:

- ▶ Ofizioa edo lanbidea adierazteko (artzaingo, nekazalgo, irakaslego, udaltzaingo...).
- ▶ Tasun edo ezaugarria adierazteko (euskaldungo, ahaidego, gutxiengo, gehiengo...).



MAILOPE

· MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN: Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU: Mailope Kultur Elkarte. L.G.: NA 719/93 Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik. issuu.com/mailopealdizkaria

· ERREDAKZIOA: Ainhoa Beraza, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Irati Moreno, Mikel Hernandez eta Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK: Elena Irigoien, Idoia Igoa, Juan Antonio Garaikoetxea, Ane Zabala, Maider Saralegi, Julen Saralegi, Eneritz Urkola.

· PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

· MAKETAZIOA: Noé Lopez Albizu

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

LABRIT MULTIMEDIA

AURKIBIDEA

02 ▶ ZUZEN ETA JATOR

04 ▶ KUXKUXEAN Zorion agurrak

07 ▶ MAITE DITUT MAITE Apezeuntze eta gaztain eskorta (eskortea)

08 ▶ ELKARRIZKETA Ttuturre Mendi Taldea: Idoia Igoa+ Xabin Atxealandabaso

12 ▶ BATZARRE


14 ▶ ERREPORTAJEA Korrika, behar bada poliki, baina euskara gelditu gabe

18 ▶ KULTURA


22 ▶ KIROLA Beti-Kozkor: Romeo Blaise: "Lehen jokalaria eta orain entrenatzaile, baina beti futbola zainetan"

28 ▶ PLAZATIK PLAZARA MIMUKAI: "Proiektuak loratzeko toki bat"

31 ▶ AGENDA




Eneko Eleta Egaña
Apirilaren 9an, 7 urte
"Zorionak!! 7, Eneko!!
Muxu handi bat
etxekoan partetik."



Aimar Uranga Gaztelumendi
Apirilaren 4an 7 urte egingo ditu.
"Zorionak Aimar eta muxu handi
bat etxeko guztien partez!! Beti
bezain alai eta energiaguz betirik
jarrai dezazun. Pila bat maite
zaitugu txapeldun!"

Eros Paul Méndez Campos
Martxoaren 30ean, Eros,
dagoeneko 15 urte, urtebetetze
zoriontsua desira dizugu. Zure
aita, ama eta arreba. Beti izango
zara gure txikia. Bihotzez asko
maite zaitugu.





Conchi Liciaga Zatarain
Apirilaren 30ean, 77 urte
betetzen ditu:
"Zorionak amona!!
Bazkaria prestatu, gu
bazkaltzera joango gara
eta."


Intza Etxarri Zubeldia
Martxoaren 30ean, 5
urte. Zorionak, Intza!!
Ongi pasa zure egunean.
Muxu handi bat familia
guztiaren partetik!!



Maren Michaus Landa
Apirilaren 12an, 6 urte.
Zorionak Maren! Egun
ona pasa eta segi orain
arte bezain irudimentsu
eta alaia izaten! Muxu
handi bat familia
guztiaren partez



Maren Elordi Ilarregi
Apirilaren 10ean, 9 urte.
Zorionak, politte!! Ongi
ospatu eta ongi pasa zure
urtebetetze egunean.
Muxu handi bat, asko maite
zaituen familia guztiaren
partez.



**Amaia eta Asier
Sestorain** Apirilaren
24an, 10 eta 38 urte.
Zorionak printzesa eta
aitatxo!! Disfrutatu zuen
eguna!! Muxu asko!

Aitor Villanueva Oreja
Apirilaren 8an, 2 urte.
Zorionak, Aitor gure etxeko
bihurritxo!! Segi beti bezain
alai!! Muxu haundi-haundi bat
famili guztiaren partez.


Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren
20a baino lehen.

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK
ARTZAL GAZTAK
Granja Maritima, GARTZA, Nafarroa
Tel. 943 872 057 • fax. 943 311 007
Mailok.com • info@mailok.com

Betelu[®]
Euskal Herriko Ura
%100
PET
birziklatua
Ur Mineral Naturala

BIDEGOXO JATETXEA
Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak
Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



LAPURRETAK ARAITZ ETA BETELUN

Araitz eta Betelun lapurretak egon
dira azken denboraldian, izan ere,
bertako hainbat biztanlek diote bi-
zikletak, dirua, ahuntzak, akerrak eta
halakoak bahitu dituztela. Galdutako
hainbat animalia azaldu dira,
baina guzmo da ez dituztela erru-
dun suztiak harrapatu eta oraindik
objektu eta animalia batzuek desa-
gertuta jarraitzen dute.



LEKUNBERRIKO MUGIKORTASUN PROZESUA

Lekunberriko Udaleko orrialdean
jada eskuragai dago Alde Zaharre-
ko mugikortasun azterketan parte
hartzeko galdetegia. Era honetan
era errazean parte hartzeko 5 mi-
nutuko galdetegia "klik" batera
dago, bakoitzak bere ekarpenak
aukera erosoan adierazteko.



KANTATU ETA MUSIKAZ GOZATZEKO

Goizean, astean behin ordu eta
erdiko saioak eskaini dituzte Ara-
lar Udal Musika Eskolak eta Kultu-
ra Sailak 60 urtetik gorakoentzat.
Gabari Gune Irekian eta Eguneko
Zentroan egingo dira. Aste-eguna,
ordutegia, hasiera data eta iraupe-
na izen emateak aztertu ondoren
erabakiko dira.

► Irati Moreno Blas (Aldatz)



*Hitz eta doinuetan
hasten naiz aurkezten
izan ere aurten naiz
Mailope idazten,
orri txuri guztiak
hitz ederrez janzten
saiatuko naiz behintzat
haria ez galtzen.*

Doinua: Behin batian Loiolan. Hurrengoa: Garazi Moreno Blas (Aldatz)

EUSKARAK KALEA BEHAR DU! EUSKALDUNOK KALEA HARTU BEHAR DUGU!

Aurreko egunean batean, lan egiten dudan institutuan ikasle batek bota zidan: "hamar pertsona bagaude eta batek euskaraz ez badaki, logikoa eta errespetuzkoa da gazteleraz hitz egitea". Hitz-kate horren eta bota duen pertsonaren atzean, banan-banan aztertu ezin diren hamaika bizipen zehatz daude: eguneroko elkarrizketak, diskurtsoak, gertaerak, irudiak, bideoak... Eta horietan baina nagusitu den logika bat antzeman daiteke, mundua gobernatzen duen logika indibidualista eta sasi-bakezalea, alegia.

Euskal Herrian (ere) agintzen duen logika horrek berak ezkututzen ditu bi pertsonaren edo gehiagoren artean dauden botere-harremanak; klaseak, sexu-generoak, jatorriak, azal-koloreak, hizkuntzak eta abarrek eragindakoak. Horrela, denok askeak eta boterez berdinak bagina bezala pentsatzera eraman gaituzte, gure bizipen eta ekintzen kausa zein ondorio sistemikoak ezkutatu, ikusezin bihurtuz. *Nik euskaraz edo gazteleraz egin, zer axola du? Aske naiz nahi dudana egiteko. Gainera, ez dadila inor gaizki sentitu, ez dezagun inor gaizki sentiarazi. Errespetatu dezagun dena, bakoitzak egin dezala nahi duena, bakeak asko balio du...*

Pentsamolde honek, bistan da, gure arteko egiturazko botere-harremanak ezkutuan uzten ditu eta itxurazko bakea ezartzen du, noski, zapaltzailearen mesedetan eta zapalduaren kaltetan. Aipatutako ikasle horri honela itzuli nion galdera: "Eta hori egiten badugu erdaldun bat dagoen guztietan, zenbatetan ahalko dugu geure hizkuntzan, euskaraz, hitz egin?". Segundu batzuetako isiltasuna sortu zen eta beste ikasle batek horrela erantzun zidan: "Bai, baina orduan, mundu guztiak euskaraz ikasi beharko luke eta hori lortzea oso zaila da...". Ttak, hasi ziren maila kolektiboan pentsatzen, baina jakina, egiturazkoa dena aldatzea zaila da, zailegia indibidualismoz inguratuta hazi den norbaitentzako.

Azken urteetan gero eta gehiago, ikasleek euskara eskolarekin eta arauarekin lotzen duten irudipena dut, eta erdara, kontrara, dibertsioarekin eta askatasunarekin. Urte luzetako borrokaren ondorioz euskara neurri (txiki) batean instituzionalizatzea lortu dugun bitartean, diglosia egoera bortitzean jarraitzen dugu, baina gutxi hitz egiten da horri buruz, eskoletan,

etxeetan zein kalean. Errealitate gordin hori ezkutuan geratu da, indibidualismoaren eta sasi-bakearen araupean. Izan ere, Arestik zion bezala, bakeak euskarari -eta edozein talde zanpaturi- kalte egiten dio.

Errealitateak, sarritan, begiratu hutsarekin ez dira ikusten, baina seinalatuz gero bai. Horregatik, nire ustez, horixe dagokigu orain; hitz gutxitan esanda, nagusitzen den maila instituzionaleko borrokari uko egin gabe, kalea berreskuratu behar dugu; lehenak bigarrena apaltzeko izaten duen joera gaindituz. Eskubide indibidualen lanketatik eta hitz neurtuetatik haratago, herri gisa ditugun ametsaz, etsaiez eta askatasun kolektiboetarako bideez hitz egiteko premia dugu. Egunerokoan "normaltasun" gisa bizi ditugun egoerak desnormalizatu eta kaleak astintzeko. Eta kale horietan, behekoen askatasuna nahi duten beste mugimendu batzuekin topo egin eta indarrak batzeko.

Bizitza, hizkuntzak, herriak eta errentagarri ez zaion guztia suntsitzen dituen sistema honen eta bera iraunarazten duten Estatuaren aurrean, gure artean bereizi eta isolatzen gaituztenen aurrean, itxaropena kendu nahi digutenen aurrean... komunitatea lantzea da mugimendu askatzaile guztion premia bizia. Horretarako, kontzientzia hartu, elkartu, konplexu zahar-berriak gainetik kendu, taldean pentsatu eta ekin behar dugu. Tokian toki, ahal den eremu guztietan erein, borrokak piztu, eragin. Bakarrik ezin dugu, lagunekin bai.

Astindu berri bat behar du gure hizkuntzak eta komunitateak. Apirilaren 22tik 28ra izanen dugun Euskaldunon Harrotze Asteak horretarako aukera bat eskainiko digu, inflexio puntu bat, elkar motibatuz eta ahalduz. Kolektiboki harrotzeko ariketa bat izanen da, parte hartu nahi duten euskaltzale guztiei irekia.

Gure institutuko ikasleek, beste guztiok bezala, egoeraren kontziente izateko eta askatzailea den komunitate baten parte aktibo izateko eskubidea dutelako, eman diezaiogun euskarari kalea!

Sugoi Etxarri Zabaleta

Hurrengo:
Uxue Etxarri (Oderitz)



Mainer Saralegi (Lekunberri)

maite ditut maite gure bazterrak

Apezeuntze eta gaztain eskorta (eskortea)

Ibilbidea: joan-etorria
Distantzia: 8.5km
Desnibela: 350m
Zailtasuna: erraza



Zergatik aukeratu dut?

Ibilbide hau edozein egunetan egin daiteke, denbora askorik ez duzunean egiteko egokia da eta gainera Lekunberritik autorik hartu gabe egin daiteke. Albiasuko gainean ikusten diren bistak oso politak dira eta ibilbidea lasaia da.

Bidea:

Lekunberritik Albiasura doan errepidea jarraituz, 2.km-an eskuineko bidea hartuko dugu (1), eta bide hau (2) jarraituko dugu zubi (3) bateraino iritsi arte. Erreka gainetik pasatzen den zubia gurutzatu eta bidea jarraituko dugu, zela batera iritsi arte, eta eskuinerantz jarraituko dugu, gorantz (4). Jarraian, ezkererantz eginez zelaia inguratuz jarraituko dugu (5). Bidea jarraituz bigarren zubiraino (6) iritsi arte.

Bigarren zubia gurutzatu eta bidearekin jarraituko dugu, pista bateraino iritsi arte. Hemen, pistan eskuinerantz (7) joango gara, berriro ere mendiko bidea hasi arte.

Bide hau jarraitu eta hirugarren zubia gurutzatuko dugu, eta aurrera jarraituz Albiasu herriraino iritsiko gara.

Aurrera jarraituz, Albiasuko frontoiaren ondok pasaz Apezeuntzeraino (9) igoko gara, eta ibilbidea markatzen digun kartela ikusiko dugu. Hau ibilbideko puntu altuena izanik (8), eskuin aldean dagoen bidetik jaisten hasiko gara (10)

Bidea jarrituz (11,13), 40m-tara gaztain eskorta dagoen kartela (12) ikusiko dugu (14). Jaisten ari ginen bidea jarraituz, Errazkinera iritsiko gineteke 1,7km gehiago jarraituz gero.

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

● ● Idoia Igoa Garro (Oderitz) eta Xabin Atxealandabaso Barandika (Lekunberri). Ttuturre Kirol Elkarte

“Jarraipena da lorpen handiena”

Malloen barren-barrean, abenturaren espiritua eta lagunartea berekin daraman Ttuturre mendi elkarte ezagun da, natura eta mendia maite dutenentzat aproposa. Hainbat udalerritako bazkideekin osatzen da, baina ez da bakarrik mendiko elkarte bat, komunitate bat dela ere diote Idoia Igoak eta Xabin Atxelandabaso, bertako mendizaleek.

Zer da Ttuturre Kirol Elkarte? Noiz eta nola sortu zen?

1989an sortutako mendi irteerak egiten dituen elkarte da, iraganen mendira ateratzen zen eta jendearentzat sortu zuten. Garai horretan gurasoak seme-alabekin ateratzen ziren. Lehenengo irteeretan familia eta kuadrilla handiak elkartzen ziren, hilabetero, astero... Gehien bat

inguru honetan ibiltzen ziren, nahiz eta gero beste eboluzio bat izan.


Zeintzuk dira bertan parte hartze-ko jarraitu behar diren pausoak?

Taldean sartzeko ez da ezer berezirik egin behar, mendian ibiltzeko gogoia izatea eta besterik ez. Jendeak probatzeko aukera dauka, bertako giroa sentitzeko, eta egiten diren ibilbi-

deak ikusi eta probatzeko. Aurten ere kide berriak sartu dira. Gero ere, aukera dago federatzeko, hori gomendagarria da segurtasun aldetik. Gehienek mendi aseguruia daukate, baina ez daukatenak ere etortzen dira, guk beti gomendatzen dugu segurua egitea baina gai irekia da.

Zer jarduera mota eskaintzen dizkie elkarteak kideei eta publiko orokorrari?

Urte bukaeran bilera bat egiten dugu eta urte osorako egutegia prestatzen dugu. Aurten adibidez Urmuga ibilbidea prestatu dugu, Bizkaitik hasi eta etapaz etapa gure ingururantz etorriko gara ibilbide osoa eginez. Bi ibilbide prestatzen ditugu, lau, bost eta batzuetan sei ordukoak eta beste ibilbide bat



Alex Txikon mendian.

errazagoa, desnibel gutxiagoarekin, eta motxagoa, bi edo hiru ordu ingurukoak. Norberak erabaki behar du zein den egin nahi duen ibilbidea. Irteerak beti hilabetean behin izaten dira, azkeneko igandez. Guk autobusa eskaintzen dugu, eta ibilbide ondoren egiten den bazkaria.

Mendiko jardueretan aurre egin al diozue arrisku edo larrialdi-egoerei?

Ez, egin ditugun irteeretan ez da inoiz ezer gertatu, ibilbideak ongi prestatzen direlako. Ohitura da egin behar den bidea aurretik ikustera joatea eta informazioa jasotzea, segurtasun handiarekin egiteko. Momentuz ez dugu arrisku edo larrialdi egoerarik izan.

Duela gutxi, Alex Txikonen proiektio hitzaldia eskaini zenuten Gabari Gune Irekian, zeri buruzko hitzaldia izan zen?

Alex Txikon Annapurnatik etorri berria zen eta izan zuen esperientzia kontatu zigun. Ondoren, Manasluko irteerari buruz hitz egin zuen, bertara hiru aldiz saiatu ziren igotzen. Hortaz aparte, proiektio bat eskaini genuen, Nanga Parbat mendiaren igoera. Berak beti irteerak neguan egiten ditu eta bere azken espedizioak kontatu zituen.


“Guk atea irekita ditugu edozeinentzat”

Nola okurritu zitzaizuen bera ekartzea? Zergatik?

Urtero zerbait desberdina eskaini nahi dugulako. Joan den urtean bere proiektioa bat ikusi genuen eta asko gustatu zitzaigun, bere azaltzeko modua eta izateko modua. Beranduago, berarekin harremanetan jarri ginen eta oso ongi atera zen dena.

Beste aldetik, zein da elkartearen egiteko nagusia eta zein dira epe luzerako helburuak?

Egiteko nagusia egutegia prestatzea da, ibilbideak prestatu, informazioa, etab. Nolabait jendea laguntzea, mendira ateratzea eta kirola bultzatzea. Bi urtetik behin Aralar ibilbidea egiten dugu, gero urrian Onddoen Eguna, Larraungo Egunerako zerbait prestatzeko ere esan digute, eskolako DBHko ikasleekin urtean behin ere irteera bat egiten dugu, eta gu beti laguntzeko prest gaude, norbaitek mendira joan nahi badu gurekin harremanetan jarri daiteke.



Ttuturre Kirol Elkarte kideak Pirinioetako mendi irteeran Argazkia: Idoia Igoa

Zer nabarmenduko zenukete elkartearen lorpen edo mugarrigisa sorreratik?

Jarraipena da lorpen handiena. Hasi familia bat hasi zen eta orain taldea asko zabaldu da, jendea Araitzetik, Betelutik, Leitzatik, Ultzamatik, Iruñetik eta Larraunetik, Lekunberrietik etortzen da. Mendi talde asko daude izenarekin gelditu direnak, baina ez dago horrelako aktibitatea. Guretzat helburua da horrela jarraitzea eta hemen horrelako aukera izatea, mendi talde baten bitartez mendira ateratzea eta kirola egin ahal izatea. Eta gero, elkartasuna asko lantzen dugu, bazkariak ere egiten dira elkarrekin egiteko, giro ona sortuta. Era guztietako jendea dago eta euskaldun giroa.



Ttuturre Kirol Elkarte kideak mendian. Argazkia: Idoia Igoa



Ttuturre Kirol Elkarteko kideak Pirinioetako mendi irteeran
Argazkia: Idoia Igoa

Zeintzuk dira elkarteak gaur egun dituen erronka nagusiak?

Gauden bezala jarraitzea eta ahal bada jende gaztea berreskuratzea, nahiz eta badakigun haien kabuz ere ibiltzen direla. Hala ere, aurten ere egin dira bazkide berriak eta 150 inguru daude jada.

Nola finantzatzen dituzue elkartearen jarduerak eta proiektuak?

Alde batetik bazkideen kuotaren bidez, urtean hogeituro dira, Aralar-ko martxan ateratzen dugunarekin, eta ondoren erakusketarekin baita, honetarako Lekunberriko Udalak laguntzen gaituela. Beste aldetik, hitzaldia egiten badugu erdia Lekunberriko Kirol Mankomunitatek ordaintzen du.

Zer eginkizun du ingurumenaren kontserbazioak elkartearen jardueretan?

Joaten garen lekua zegoen bezala uztea, gosaltzen dugun lekuetan

“Kontzientziarioa da garrantzitsua, beste hitzik ez dugu”

hondakinik ez uztea, dena jasotzea. Historikoki, duela urte batzuk bazegoen hitzarmen bat non Ttuturre, Larraungo Udala eta Lekunberriko Udala hemengo bideak garbitzen arduratzeko. Horrela egiten zen, baina egia da ez zela lan handirik egiten jendeak beste zeregin asko zituelako. Gero 2009 krisia dela eta, Zerbitzu Sozialen bitartez jende kontratatzeak interesa piztu zen eta horren ondorioz Ondare hasi zen lanean, guk utzi genuen, baina urte batzuetan zeozer egin genuen. Gaur egun Iturraskarri etortzen da.

Ba al duzue programarik edo ekimenik gazteek mendiko jardueretan parte har dezaten sustatzeko?

Saiatu izan gara, baina oso zaila da. Gazteek ez dute horrelako taldeetan

sartu nahi zeregin asko dituztelako, nahiz eta noizean behinka ibilbide bat egitera etorri. Egia da hasieran gurasoekin etortzen direla baina gero hemezortzi urte betetzean uzten dute, ikasketen, lagunaren, beste zereginen ondorioz. Interesgarria izango litzateke gazteak elkartu eta antolatzea, egia da gehiengoari desafioak gustatzen zaizkiela, menditik korrika egitea, eta zaila da egokitzea, alde horretatik ulertzen dugu, hala ere, guk besoak zabalik ditugu etorri nahi badute.

Laguntzen ahal duzue mendiarekin zerikusia duten beste erakunde batzuekin?

Duela gutxi Sakanako Mendigoizaleekin elkartu ginen. Irañetatik joan ginen Oderitzeraino oinez, eta denak elkarrekin bertako sagardotegian bazkaldu genuen. Jendea pozik gelditu zen eta urtero egiteko asmoa daukagu. Altsasu, Etxarri Aranatz eta Iruztzun daude hemen inguruan, elkarte txikiak dira, eta Sakanako



5. Ttuturre Kirol Elkarteko kideak mendian Euskal Herriko Mendi Biltzarraren mendeurrenaren kartelarekin. Argazkia: Idoia Igoa

mendiak igotzeko elkartzen dira. Beste aldetik, Nafarroako Federazioeko Pagoan sartuta gaude, eta beraiek ateratzen duten egutegian agertzen gara, bertan parte hartzen dugu.

Zuen ustez, zer eragin du elkarteak tokiko komunitatean?

Ez dauka oso eragin handia, baina ezaguna da. Urte batzuetan agian jendeak beldurra zuela Ttuturre mendi elkarte oso gogorra zelako baina uste dugu orain bi ibilbide egiten direnez aukera desberdinak daudela.

Etorkizunerako hedapen-planik edo ekimen berririk ba al duzue buruan?

Bai, aurtengo egutegia dagoeneko prest daukagu, dagoeneko irteera batzuk egin arren, hainbat ibilbide berri aurreikusi eta prestatu ditugu: apirilaren 28an Euskal Herriko Urmugaren 9. etapa garatuko da Hirumugarrietara, maiatzaren 26ean 5. etapa abiatuko da Marietan,

ondoren ekainaren 26an 6. etapa egingo da Arantzatzun, irailaren 6, 7 eta 8an asteburu pasa Palentzian, bertako Curavacas eta Pico Murcia egitera. Urriaren 17an 7. etaparekin jarraitzeko asmoa da Otzaurten, azaroaren 24an 8. etapa Lizarrustiko mendatean, eta urtea amaitzeko, abenduaren 15ean 4. etapa Krutzean.

Zer aholku emango zeniekete mendizaletasunaren munduan gehiago sartu nahi dutenei?

Beldurrik ez izatea, eta probatzera animatzea.

Zerbait gehiago aipatu nahi duzue?

Bai, hortaz aparte, aurten Euskal Herriko Mendi Biltzarraren mendeurrena da. Bertan ekintza desberdinak gauzatuko dira eta guk apirilaren 28an 9. etapan parte hartuko dugu lehen aipatu bezala, Euskal Herriko Urmuga ibilbidean (Ttuturre kirol elkarte egutegian ikusgai). Liza-

“Duela gutxi zenbatu genituen eta 16 leku desberdinetatik etortzen da jendea”

rustiko mendatetik atera, Hirumugarrietara eta bukatzeko Rasos de Albingo soilgunean amaitzen den ibilbidea egingo dugu. Egun berean leku desberdinetan 100 mendi igotzea da helburu mendeurrena ospatzeko. Hala ere, urte guztian zehar hainbat ekintza desberdin egingo dira: maiatzaren 18an ekitaldi instituzionala Elgetan, ekainaren 4an Oroitzapenezko Haurren eta Beteranoen Martxa, irailaren 28 eta 29an Iruña - Belagua Ultra, urriaren 13an Euskal Herriko Geografia Zentrorako Mendi Ibilaldia, urriaren 18an EHM-Bren Mendeurrena Gala, azaroan “Mendiurrena” dokumentalaren aurkezpena, eta urtea amaitzeko, abenduan Pyrenaicaren monografi-koa Mendeurrenari buruz.

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

AMAIRU BAR
GITXKO PIZZAK,
KOPA BEROZIAK
948504352

Antsoñea
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antsonea.com
Ustegi (Araitza)

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO

aseguru
gintza
XXI

ASEGURU
AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarria
behar bezela aseguratua
egotea da

aseguruak@aseguruak.eus
943 65 22 20
Korreo Kalea 7-baxua 20400
Tolosa

HOSTAL
BETELU

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta
pizza goxoak

Erreserbak:
948 51 30 26 - 663 97 67 09

Atabal
ehindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151



BERTSO SAIO MUSIKATUA

Ahotsen eta instrumentuen doinuz alaitu zen giroa martxoaren 2an Gabari Gune Irekian, Korrika kulturalaren eskutik. Bertan, Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal eta Julio Soto izan ziren ahots nagusiak, Maddi Soroak eta Olaia Soroak aurkeztu eta gaia proposatzen zuten bitartean. Beste aldetik, Gari Otamendi eta Ixaak Arruti egon ziren gitarra eta biolina jotzen.



KONTRABANDO SAREA ALDATZEN

Europako tabako kontrabando sare handiena aurkitu da Aldatz eta Elortzibarren. 31 tona tabako aurkitu ziren eta ogasun sailak 51 milioi euro erreklamatu dizkie errudunei. Fiskaltzak, 12 urte eta bederatzita hilabeteko espetxe zigorra eskatu zuen 5 akusatuentzak hainbat delitugatik, baina zigorra bi urte terdi eta 5 urte inguruan ezarri zaie.

Hortaz aparte, milioi askoko isunak ordaindu beharko dituzte.



MUSIKA ESKOLAKO KONTZERTUAK

Giro aparta osatu zen martxoaren 6an Gabarin, Larraungo Udaletxean. Bertan fanfarrea, zeharkako txirula, txistua, trikitia eta perkusioa entzuteko aukera izan zuten joan ziren guztiek.

Beste aldetik martxoaren 7an Lekunberriko elizan, musikaz gozatzeko aukera bikaina izan zen, bertan kitarra, pop rock, abesbatza gaztea, pianoa eta saxofoia entzuteko aukerarekin.



ELIKADURAREKIN NEGOZIORIK EZ

Gure eskualdeko Gogor elikagai banku sozialistak 4 urte beteko ditu aurki eta elikadurarekin loturiko hainbat datu argitaratu ditu. Bizitza garestituz doa eta soldatak ez igotzearekin, eros-ahalmen txikiagoa daukagu. Horren ondorioak latzak dira familia askotan eta gaiaren larritasuna kontuan izanik, hitzaldia antolatu dute apirilaren 12an 18:00etan Beteluko udaletxean.

KOBAZULOEN EGUNA MENDUKILON

Martxoaren 16an eta 17an, Lurpea Elkartea osatzen duten kideek Kobazuloen Eguna ospatu zuten Mendukilon. Euskal Herriko kobetaz gozatzeko eta seigarren kontinentea ezagutzeko aukera paregabea izango zen. 300 pertsona baino gehiago joan ziren kobazulora, aste bukaera modu berezi eta dibertigarrian amaituz.



AMAVIRREKO LANGILEAK PROTESTAN

Martxoaren 12an Beteluko zahar egoitzan kontzentrazioa egin zen. Langileek salatu dute enpresak blokeoa ezarri duela langileen lan baldintzak hobetzeko negoziazioa geldituz. Hitzarmen hobeak lortzeko protestan jarraitzen dute, lan baldintza "iraingarriak" direla eta erabiltzaileen arreta egokia ez dela ziurtatzen diote.



● ● Beatriz Buldain Etxarri (Lekunberri), Jone Gabari Satrustegi (Lekunberri), Edurne Etxetxikia Goikoetxea (Astiz).

Korrika, behar bada poliki, baina euskara gelditu gabe

AEK euskaltegiak ibilbide itzela prestatu dute aurten ere 23. Korrikarako. Aurten ere, "Harro Herri" leloarekin. Irunen hasi zen martxoaren 14an, eta hamar egun beranduago Baionan amaitu zen, martxoaren 24an. 2.700 kilometroko ibilbidea izan da, eta Larraunen martxoaren 19an igaro zen, Aldatzen 14:42an, 14:31 Etxarrin, 14:50 Mugiron, 15:03 Lekunberrin eta 15:39 Uitzin amaituz hemengo ibilbidea. Giro aparta osatu zen Larraun eta Lekunberri aldean, bertakoen eta ingurukoen umore ona antzematea ez zen zaila, denak kantari, musikaren erritmoan, ume, gazte zein heldu, neska edo mutil, denak berdin korrika. Giroa aparta sustatu zuen Hodei Buldaine, furgonetako "speaker" trebeak, eta AEKko Jone Gabari, Beatriz Buldain eta Edurne Etxetxikia langileen koordinazioa eta laguntza aparta izan zen.

14

Korrika Kulturala

Korrika Kulturala Korrika aurretik girotzeko eta kulturari aldi berean bultzada bat emateko antolatzen diren ekitaldi eta ekintzen multzoa da, bertako edo kanpoko eragileekin. Batez ere, jendeak ikusteko Korrika

badatorrela.

Normalean batzorde bat osatzen da, toki desberdinetan antolatzeko. Euskaltegioko langileek deialdi bat egin zuten batzordea sortzeko, hurbildu zen jendearekin sortu eta gero beste gauza batzuen artean Korrika kulturala antolatu zen, denen

"Eromen hunkigarri bat da"

artean sortutako ekarpenak kontuan hartuta.

Komunitateak parte hartzea polita izan zen, bi saio garrantzitsu egin ziren, bakarrizketa eta bertso saio musikatua. Umeekin ere txapak egiteko tailer bat antolatu zen. Hortaz aparte, Araitzen ere ipuin kontalaria egon zen, eta ondoren afaria elkartean, korrika kulturalaren baitan, izan ere, euskaltegitik beti saiatzen dira ahalik eta eremu handiena hartzen Lekunberritik kudeatu arren.

Korrika 2024

Ikaragarri ongi igaro da korrika aurten ibar eta bertako inguruetatik, "sentsazioa oso ona izan da, jendeak harrera ona izan du". Euskaltegitik aurretik bizitzen dutela diote Jonek,

"Hainbeste lan egin ondoren emozioz bete gara"

Beak eta Edurnek, lanean aritzea tokatzen zaielako egun horretan eta telebistan ikusita edo furgonetatik atzera begiratuta parte hartzen dute. Jende pila ikusi zuten haien kilometro guztietan eta hori arrakasta itzela da. "Euskaltegioko birbilgune honetatik atera ginenean atzera begiratu eta jendea oraindik sartzen ari zela ikusi genuenean, sentsazioa izugarria izan zen, zirudien jende uholdea ez zela bukatzen". Eta ez bakarrik Lekunberrin, gainontzeko herrietan ere jende pila zegoen, bertako kilometro guztietan giro izugarria ikusten zen. Oso hunkigarria eta polita izan zen, argi ikusten zen jendearen alaitasuna, irribarrea eta ilusioa.

Korrika antolatzeko, batzorde bat osatu zen Lekunberri-Larraun mailan, baita Nafarroa mailan ere. Azkeneko hau normalean hamabost egunetik behin izaten da, eta handik lanak bidaltzen dituzte beste lekuetan antolatzeko. "Pausoz pauso joaten gara beraiek egiten dutena hemen egiten, gure artean banatzen ditugu lanak edo bestela batzordean eginbeharrak antolatzen ditugu denon artean egiteko".

Horrela antolatzen da Korrika Euskal Herrian, kronologia baten gainean. Lehenengo Korrika aurkezpena egiten da, gero ibilbidea argitaratzen da, eta ondoren Korrika Batzordeak osatzen hasten dira.

Aurten Aste Santua lehenago izan da, orduan, horrek lana baldintzatu du. "Aurten lehenago izan da, baina azkartasun horretan ongi moldatu gara". Langileentzat momentu gogorrena Gabonak pasa eta Aste



Korrika 2024. Argazkia: Jone Gabari



Korrika 2024. Argazkia: Jone Gabari

15

"Argi dago, dakienak ez badu egiten jai daukagu"

Santu bitarte horretan izaten da "denbora gutxiago dagoenez, lan gehiago dugu, nahiz eta lan berak izan bizkorrago egin behar direlako". Hori eskualdeei dagokienez, baina ibilbideari dagokionez, aipagarria da urte bete lehenago hurrengo Korrikako ibilbidea pentsatua dagoela edo behintzat pentsatzen hasia.

Lasterketari dagokionez dena ongi joan zen, baina une batean ume bat galdu zen, atzeko furgonetan jaso zuten Uitziko bidean, eta nahiko goran gainera. Furgoneta batetik bestera komunikatu ziren, eta azkenean umearen familia aurkitu zuten. Izan ere, beti sortzen dira horrelako gauzak, azkenean umeak zirrarez gainezka egoten dira eta korrika



Korrika 2024. Argazkia: Jone Gabari



Korrika 2024. Argazkia: Jone Gabari



Korrika 2024. Argazkia: Jone Gabari

“Euskararen alde nik uste ekintza badagoela, agian falta dena da euskaraz, pauso hori ematea”


Bidearen bitartez eta Euskara Mankomunitatetik bekak jasotzen dituzte.

Urriaren lehenengo astean jartzen da martxan euskaltea, eta ekainean bukatzen da, bigarren edo hirugarren astean. Plangintza egutegiari dagokionez, normalean euskaltegian astean bost orduko ikastaroak osatzen dira. Horretaz gain, autoikaskuntzan aritzeko aukera dago, astean ordu erdi bateko tutoretzak eta gero etxeko lanak izaten dira, programazio bat bakoitzak bere kabuz egiteko. Bertan mintza saioa ere izaten da, ordu eta erdi astean baldin eta taldea osatzen bada, izan ere, zaila izaten da ordutegiakin bat etortzea jende guztiarekin egokitzeke.

Lekunberrin lau talde daude euskaltegian momentu honetan, hasiera mailako bi talde, beste bat B1en eta gero B2-C1 taldea. Beste aldetik, autoikaskuntzan aritzen diren ikasleak daude, zerotik hasitakoak eta EGA ateratzeko prestatzen ari direnak. Azken bi urteetan hemen iguera izan da.



Korrika 2024. Argazkia: Jone Gabari



Beatriz Buldain, Edurne Etxetxikia eta Jone Gabari euskaltegian lanean

jarraitzen dute, baina gelditzerakoan galduta sentitzen dira.

Aurtengo jendearen harrera oso ona izan da, oso hungigarria, denok alai, txaloka, negarrez. “Jendeak zoriondu egiten gaitu, eta noski, guk antolatu dugu baina denok gara parte, oso polita da”. Beste aldetik, oso zaila da neurtzea Korrikaren eragina euskara ikasteko interesari dagokionez baina egia da beste urteetan beti hurbildu dela norbait Korrika ostean euskaltegian matrikulatzea, bizitutakoa ondoren euskara ikasteko gogoz.

AEK

Larraungo AEK 1999-2000 ikasturtean zabaldu zen, azaro inguruan.

Bertan normalean irailean izaten da matrikulazio kanpaina, eta azkeneko urte hauetan maiatz-ekain partean egiten da aurrematrikula ere. Horrek baditu ere onura batzuk: “Leku guztietan dena garestitu denean, gure etxean ere hala gertatzen da, eta aurrematrikula egiten duten ikasleek aurreko ikasturteko prezioa ordaindu beharko dute”. Bestetik, aurrematrikulatuta egoteak lehentasuna ziurtatzen du besteen aldean, eta epe gehiagotan ordaintzeko aukera. Uztailean hasten da lehenengo ordaintzarekin eta ez du baldintzatzen. Ondoren, norbaitek ezezkoa esaten badu ez dauka inongo arazorik. Ikasleek gure zonan doan ikasteko aukera dute nahiz eta hasieran diru hori aurreratu, Nafarroako Gobernutik, Euskara

Inguruko jendeak euskararekin duen harremana naturala da, euskaraz jai eta euskaraz bizitzen da eta kontrako jarrerarik ez dago. Lekunberri “erdaldunagoa” izan dela esan dezakegu, erabileraren faltagatik, baina azken urteetan jende euskalduna etorri da eta orain, erdiak baino gehiagok badaki euskaraz.

AEK inguruko beste eragile bat da, eta elkarlanean aritzeko gaitasuna nabarmendua da. “Bestelako gauzak antolatzen parte hartzen dugu, jendeak bertako irakasle bezala ezagutzen gaituzte”. Euskaltegiak badu hemen bere pisua, euskararekiko lotura hori egiten dute bertakoek, eta hori polita da. Baina

“Ikusi eta sentitu egiten da, zerbait oso berezia izan da”

lehen aipatu bezala, irakasleen ustez erabileran badago hutsune txiki bat, “pausu bat eman behar da eta Mintzakideren bidez hori lortu nahi da. Mintzakide AEK barruan dagoen programa doan bat da jendeari euskaraz aritzeko aukera paregabea. Parte hartzaileak elkartzen dira, beraiek aukeratzen duten lekuan eta orduan. Normalean astean ordu bat izaten da eta helburua euskaraz aritzea da. Taldean beti dago euskaldun zahar bat, euskara ongi

dakien norbait “Bidelagun” deitzen zaiona. Batzuk ikasleak dira eta beste batzuk ez, euskaraz aritzeko aukerak ez dituztenak izan daitezke edo besterik gabe euskaraz beste leku batean aritu nahi dutenak. Taldeak asko animatu, elkartu eta normalean urteak mantentzen dira, izan ere, harremanak eta sareak sortzen dira, oso polita izaten da.

“Eskerrak eman nahi dizkiegu euskaltegitik denei, bai kilometro erosleei, bai lekuko aldaketen erosleei edo korrika egitera ateraren diren guztiei baita Korrika Kulturean parte hartu duten guztiei, eta etorri diren guztiei, izan ere, Korrika denon artean egiten dugu, argi dago denen beharra dagoela”.

Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara

rey del bacalao
Super mar

BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com.

Inor ez da libre denak aske izan arte!

Emakumeen Nazioarteko Egunean, manifestazio indartsuak egin ziren gurean. Egun hotz eta lainotsua zirudien arren, ez zen herritarren bero falta, eta egun bukaerarako agertu ziren eguzki printzak farolen argiak piztu ahala. Larraungo udaletxetik Lekunberriko plazara txistuaren zarataz joan zen pertsona mordoa. Araitz eta Beteluko biztanlean Arribeko surtidorean egin zuten elkarretaratzea.

Beste alde batetik, hilabete zehar beste ekintza batzuk ere izan ziren: martxoaren 9an emakumeen bazkaria antolatu zen Kotxera 13 jatetxean, eta gero, Lekuonberri tabernan "tardeoa" egin zen, giro aparta bermatuz. Martxoaren 15ean ipuin-kontaketa egon zen Gorritin, algara eta istorio zoragarri lagunduta, eta bukatzeko, martxoaren 21eko zineforumean "Cinco lobitos" filma ikusteko aukera izan zen, gainera, egunaren amaieran, afari-merienda itzela egin zen jubilatuetan, giro ezin hobean.



Martxoak 8 manifestazioa Lekunberri.



Martxoak 8 manifestazioa Lekunberri.



Manifestazioa Arribeko surtidorean
Argazkia: Eneritz Urkola



Martxoak 8 manifestazioa Lekunberri.
Argazkia: Maider Balda



Pintxo dastaketa, Argazkia: Maider Balda

"3 Ene Kantak"-k amaitu du ETB3n, oholtzetan jarraitzeko asmoz

Martxoaren 23an, larunbata, aurrentzako programaren azken atala eman zuten ETB3n. Bost denboraldi, seihun saio baino gehiago, 75 abesti berri eta hainbat abentura igaro ostean, kameratetik aldentzeko garaia iritsi da. Hori bai, oholtza gainean jarraituko dute, eta ez dira agur esan gabe joan, ikus-entzuleei adierazi bezala: "Plazer handia izan da zu ezagutzea eta zurekin bizi izandako guztia, eta abentura itzel hau posible egin duten lagun guztiekin bidea egitea. Segi hegan egiten, Antxus. Guk gure abestiekin jarraituko dugu, euskara ilargiraino iritsi arte". Hortaz aparte, zaleei argi utzi diete sare sozialen bidez maiatzean proiektu berri batean hasiko direla, eta udazkenerako iritsiko dela.



3Ene kantak" ETB3n.



Martxoak 8 manifestazioa Lekunberri.

TALLERES GOÑI
CHAPA Y PINTURA

- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN

680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM

Gaintzako ihoteak

Bukatu dira eskualdeko ihoteak, Gaintzan izan da azkena aurten ospatzen, eta giro ezin hobean igaro zuten. Puskabiltzan ibili ziren etxez etxe egunean zehar, batean eta bestean gustura jaten eta edaten, trikitiak eta panderoak alaiturik, giro zoragarrian. Mozorro berezi eta koloretsuak ez ziren falta, bertakoen eta ingurukoen barre eta algara tartean. Talde ederra osatu zen, eta egunaren bukaeran, etxera joateko presarik izan gabe luzatu zuten festa, berandu arte izarren azpian kantatuz eta dantzatuz!



Gaintzako Ihotek
Argazkia: Julen Saralegi



Gaintzako Ihotek
Argazkia: Julen Saralegi



Gaintzako Ihotek
Argazkia: Julen Saralegi



Gaintzako Ihotek
Argazkia: Julen Saralegi



Irati Morenoren liburu aurkezpena
Printzan

Irati Morenoren "El vértigo del corazón" liburuaren aurkezpena Printzan

Bere lehenengo olerki liburuaren aurkezpena egin du Irati Morenok martxoaren 15ean, arratsaldeko 18:30ean Printzan. Jende asko hurbildu zen Al-dazko artista gaztearen hitzak entzun eta ilustrazioak ikustera. Emozioz betetako bidaia magikoa izan zen, Garazi Moreno, Roberto Moreno eta Luisa Aldaburu kolaboratzaileen laguntza paregabearekin.



Maddi Ane Txoperenaren "Ez erran inori" liburua

Maddi Ane Txoperena, idazle trebe, sentikor eta jakintsua, Lekunberrira etorriko da bere liburuari buruz hitz egitera, apirilaren 23an, 18:30etan, Mitxauseanean. Liburu honetan, Lide protagonistak txikia zela sufrututako sexu-abusu bati buruz hitz egiten du. Baionan bizi dela oroitzapenek eta irudi gogorrek atzetik jarraitzen dute, ihesbide bezala sexura joko du, drogara, plazerera, sorgortasunera. "Piztia hor da beti, eta ez du bakarrik eman nahi". Idazleak bere bigarren eleberri honetan Lideren mina islatu du, gaiaren gaineko ezagutza adieraziz eta tabuaren ezarpena estaltzen du. Euskara Zerbitzuan eta Mitxauseanean liburuaren ale bana izanen dira norbaitek aurretik irakurri nahi badu.

MOTZ-MOTZEAN

VERONICA SATRUSTEGI

"Made en Mexiko"

Bada ba *nearshoring* deitzen den praktika bat. Orain arte bagenekien enpresa askok kanpora, urrutira, eramaten zituztela enpresak eskulana eta produkzioa hamaika bider merkeagoak zirelako. Hortxe Inditex erraldoia. Horri, motzean, *offshoring* zeritzon.

Orain, Amerikako Estatu Batuek Txinari jarri dioten nolabaiteko hesiari aurre egiteko, *nearshoring-a* martxan jarri dute ekialdeko bizilagunek (baina et, et, ez pentsa bakarrak direnik e! Ezta pentsatu ere!).

Nearshoring-a bada helburu duten herrialdetik gertu produzitzea. Hau da, Estatu Batuetan saldu nahi dutenez eta mugak jarri dizkietenez, Mexikon produzituko dute. "Made in China", "Hecho en México" bihurtuko da. Oso modu sinplean esanda, baina gure artean ulertzeko.

Herrialde latino-amerikarrentzako sekulako aukera dela diote askok. Beste batzuek, baina, txanponari buelta eman eta itzalak ere kontatu dizkigute.

Sekulako aurrerapena ekarri lezake azpiegiturari dagokienez, baina zer kostu izanen du horrek? Eta ez naiz kostu ekonomikoaz ari. Giza- eta ingurumen-kostuaz, baizik.

Hausnarketa sustatu nahi duen adibide errealek jartzearen: ura litroka eta litroka behar da produzitzeko. Enpresak ez lirateke, beraz, jarri beharko ur-eskasia dagoen eskualdeetan, ezta? Jendeak ur eskasia badu eta ura tonaka behar duen enpresa bat ondoan jarritz gero... badakigu zeinek jarraituko duen (gehigo) sufritzen, ala?

Onurak bai, baina zeinentzat?



IORTIA CLINICA DENTAL HORTZ-ESTETIKA

Amets Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 - 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologia
Laser-depilazioa eta
depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpainen
Mikroblading bekainetan

“Lehen jokalarari eta orain entrenatzaile, baina beti futbola zainetan”

Lehen jokalarari eta orain Beti Kozkorreko entrenatzaile bezala dabil Romeo Blaise. Futbola txikitatik izan da bere pasioa, kirolari trebea da, eta bere ikuspuntutik orduak zelaian igarotzea ez da arazo bat, zoriontasuna baizik.



Romeo Blaise futbol zelaian

Zenbat urterekin hasi zinen futbolean, noiz hasi zen dena?

Kamerunen hasi nintzen, prestakuntza adinean. Zortzi urterekin futbola zaletu nintzen, nire auzoan jokatzeko nuen eta asko gustatzen zitzaidan. Hor hasi zen dena.

Nolako izan zen zure ibilbidea futbolaren munduan?

Ibilbidean gorabehera asko egon dira. Nire herrialdean, gazteentzako futbola bizimodu bat da. Klean lurrezko zelai batean baloiarekin jolastea gure dibertimendua zen, izan ere, futbola ez genuen beste modu batean ikusten. Horrela hasi eta pixkanaka konturatu nintzen jende gehiago etortzen zela gu jokatzeko ikustera, batzuetan auzoko taldeek jokalaririk fitxatzeko deitzen ziguten, beste batzuetan kanpoko taldeek, eta azkenean iritsi zen une bat begirale batek ikusi nintzen

duena, eta pertsonalki deitu ninduten talde serioago batetik, European futboleko jokatzeko helburuarekin. Hasi nintzen, nire herriko eskolan jokatzeko nuen, eta gero Espainiara etorri nintzen Kamerundik Sevillara, eta Sevillatik Irurtzunera. Hortik, begirale batek Zamorara eraman ninduen, eta han nengoela Lekunberritik deitu zidaten, interesgarria iruditu zitzaidan proiektu bat azalduz, eta Nafarroan nire familia zegoenez, esan nuen: “Hobe familiarengandik gertu egotea”, eta hona etorri nintzen.

Zer sentitzen zenuen Lekunberrin jokatzeko hasi zinen lehen aldian?

Egia esan, oso zaindua sentitu nintzen, eta oso errespetatua. Izan ere, azkenean proiektu polita sortu zuten eta iritsi nintzen itxaropena zegoela sentitu nuen. Jendeak futboleko jokatzeko ikusi nahi ninduen,

fitxaketa berri bat nintzen, zer egingen nekien ikusi nahi zuten. Zain zeuden, horrek asko motibatu ninduen eta pertsonen hurbiltasuna sentitu ahal izan nuen.

Zeintzuk izan ziren gaur zauden lekura iristeko gaitortu zenuen oztoporik handienak?

Nire herrialdetik hasita, milioika oztopo konta diezazkizuket, baina futbolarik bakarrik ari garela, eskolan oso pasarte zailak bizi izan nituen, eta nik uste dut gertaera horiek gizon gisa ere hezurramitu nindutela. Ez naiz damutzen bizi izandakoaz, depresio bat igaro nuen futbol eskolan sartuta nengoenean, horrela egoteak suposatzen duen guztiarekin. Une txarra igaro nuen, esperientzia horrek hezi ninduen, baina ez dakit nola atera nintzen hortik, ez bainuen inolako arreta medikorik izan. Geroago, Es-

“Taldea honek potentzial handia duela sentitzen dut, baina garatu behar da”

painiara etorri nintzen, aklimatu egin behar izan nintzen, eta iritsi nintzen “lotailu gurutzatua” lesio bat antzeman zidaten... Jokatzera etorri nintzen eta ezin izan nuen, oso gaizki pasatu nuen. Une batez ahaztu egin zitzaidan nire ametsa futboleko jokatzeko zela eta ikasten hasi nintzen.

Zein izan ziren unerik onenak?

Askok. Zailtasunaren barruan, egia esan, nik ez dakit zergatik, baina beti aurkitzen dut oso jende jatorra, modu desinteresatuan laguntzeko prest daudenak. Une horiek asko markatu naute. Azkenean, mundu honetan denetarik dago, baina kasu honetan asko gogoratzen naiz bidean aurkitu ditudan pertsona onenak, nire familiak eta beti hori egon diren lagunek, fa-

milia handi bat osatuz. Nik daukadan gauzarik handiena pertsona horiek guztiak dira. Haiekin hasi zen dena, gauzak ondo ez doazenean eta beti nirekin daudenean babesten nauten pertsonak dira.

Zeintzuk dira zure helburu nagusiak Beti Kozkor taldean?

Urte asko daramatzat jokalarari, eta orain entrenatzaile kluba nire zainetan sentitzen dut. Nire bizitza osoan egon nahi dut hemen, edozein kategoriatan, baina ez dakigu bihar zer gerta daitekeen. Ni klubekoa naiz, une honetan ez dut beste nonbait egotea pentsatu.

Estrategiarik erabiltzen al duzu Beti Kozkor taldearekin objektu bat lortzeko?

Jokalarari guztiak konektatuta edukitzea eta guztiak modu berean balio dutela ikusaraztea oso garrantzitsua da, nahiz eta batzuek beste batzuek baino gehiago jokatu. Niretzat funtsezkoa da, txikia naizetik izan dudana jokalarari esperientziarekin abantaila dut hori ulertzeko. Uste dut taldearen osasun psikologikoa oso garrantzitsua dela, lehenengo gauza. Nik taldea oso egoera zailan hartu nuen, jaitsieran, eta azkenean nire lehen ideia jokalaririk ondo egotea zen, non jokatzeko ari diren azaltzea, hori erraztea. “Kozkor” hitza ondo azaltzea oso garrantzitsua dela uste dut, norberak hitz honen esanahia ulertzen du kluba sentitzen duenean. Izan ere, hori izan zen hona iritsi nintzen azaldu zidaten lehen hitza. Kanpotik eta barrutik ez da modu berean ikusten, oraindik hamar partida geratzen dira eta uste dut lortu nahi ditugun emaitzak lortuko ditugula, erritmo handia ikusten dut eta gehiago eman dezakete.

Zure ustez, zer eragin du Beti Kozkor taldeak Lekunberriko komunitatean?

Lekunberrin eta inguruko herrietan eragin handia du, arratsaldeko laurretatik bederatzi eta erdietara bitartean hori orduak pasatzen dituzten haur eta gazteen kopurua aipagarria da. Hor ikusten da klubaren eragina. Oinarri hori zaindu behar dugu, nahia dugulako gazteak hemen

“Horren ondorioz beste zailtasun bat sortu zitzaidan, baina inoiz ez nuen pentsatu besoak jaiste”

egotea, jolasten, kirola egiten, ongi pasatzen, ez etxean arratsalde osoa play-an jokatzeko. Egon daitezela hemen, ondo pasatzen, hori da garrantzitsua.

Zein dira zure epe luzerako asmoak futboleko entrenatzaile gisa? Ba al dago zure ibilbidean lortu nahiko zenukeen ametsik edo helmugarik?

Ez daukat helbururik, futbola gustatzen zait, entrenatzen dut, jokatzeko eta eraman nauen lekura eramango nau. Baina gehien maite dudana beti futbola konektatuta egotea da, asko gustatzen zaidalako.

Nolako izan da entrenatzaile gisa izan duzun esperientzia zure jokalarari ibilbidearekin alderatuta? Zein da bi paper hauen arteko aldea?

Jokalaria zarenean gauza asko eskatzen dituzu, berekoia zara beti jokatu nahi duzulako, gauzak erraz ikusten dituzu eta entrenatzaile ulertzea zaila da. Orain, entrenatzaile naizela, nire zereginetako bat da hogeita bost jokalariko talde bat kudeatzea. Asteburuko hemezortzi jokalarari deitu behar dira partidarako, eta hemezortzi horietatik bi jokatu gabe geratzen dira normalean, hauei azalpenak ematea beharrezkoa da, zergatik geratzen diren jokatu gabe justifikatuz. Gero, hamabost minutu besterik ez jokatu dituztenak ere animatu behar dira, eta hiru partidatan jarraian jokalarari berberei hau gertatzen bazaie, ez da erraza taldearekin konektatuta jarraitzen laguntzea. Bi paperen arteko aldea gauza horien guztien kudeaketa da.

Bada beste zerbait esan nahi zenukeena?

Bai, izugarri eskertzen diet klubari eta herriari, natorren tokitik etorrita, oso harrera ona izan nuen eta maitatua sentitzen naiz. Eskerrak eman besterik ezin dut egin.



Beteluko Areto-futbol taldea 3. mailara igo da

Ligako lehen postua lortu du Beteluko areto futbol taldeak hiru jardunaldi lehenago, 60 puntutik 50 lortuta igo dira 3. mailara. Herriko kirolari gazteek azken partidua etxean jokatu eta 7-3 irabazi zuten Zintronikoaren aurka. Igor Garmendiak 2 gol sartu zituen, eta Beñat Garmendiak, Eneko Recalde, Jon Ordorikak, Joanes Recalde eta Oier Goikoetxeak gol bana.

| Equipo | Puntuak |
|-------------|---------|
| CD Itarua | 34 |
| CD Itarua B | 24 |
| CD Itarua C | 14 |
| CD Itarua D | 4 |
| CD Itarua E | 0 |
| CD Itarua F | 0 |
| CD Itarua G | 0 |
| CD Itarua H | 0 |
| CD Itarua I | 0 |
| CD Itarua J | 0 |
| CD Itarua K | 0 |
| CD Itarua L | 0 |
| CD Itarua M | 0 |
| CD Itarua N | 0 |
| CD Itarua O | 0 |
| CD Itarua P | 0 |
| CD Itarua Q | 0 |
| CD Itarua R | 0 |
| CD Itarua S | 0 |
| CD Itarua T | 0 |
| CD Itarua U | 0 |
| CD Itarua V | 0 |
| CD Itarua W | 0 |
| CD Itarua X | 0 |
| CD Itarua Y | 0 |
| CD Itarua Z | 0 |

| Equipo | Score | Date |
|------------------|-------|-------------|
| Beti Kozkor | 2-0 | 02 MAR 2024 |
| CD Itarua Huarte | | |
| Equipo | Score | Date |
| Equipo | 1-1 | 09 MAR 2024 |
| Beti Kozkor | | |
| Equipo | Score | Date |
| Beti Kozkor | 0-0 | 16 MAR 2024 |
| CF Ardol | | |

XXXIV. Lekunberriko Kros solidarioa (Arruizko Txikitoren Memoriam)

Arruizko Txikitoren Memoriam, lasterketa solidarioa egin zen Kaskamotzekin elkarlanean, Lekunberrin martxoaren 17an, 12:00etan. Bertan 108 lagunek hartu zuten parte, aurreko urteko arrakastaren bultzada jarraituz. Krosean lortutako irabaziak "Cris Contra el Cáncer" Fundaziora bideratu ziren, haurren minbiziaren aurka jarduten duten Madrilgo "Hospital Universitario de la Paz"eko ikerketa-taldera. Izan ere, haur minbiziari aurre egiteko baliabide asko falta dira oraindik, eta horretarako, aurreko urtean bezala, Kirolmankek Lekunberriko Krossarekin lagundu du. Lasterketa amaitu ostean, hainbat sari banatu ziren, kirolari azkarrenentzat eta hainbat produkturen zozketako irabazleentzat.

4,7 kilometroko lasterketan Andoni Valencia Molero izan zen mutil azkarrena, ibilbidea 0:17:13 minutuan egin zuen Burlatako korrikalariak. Nesketan, berriz, Hildegart Gonzalezek eraman zuen saria etxera, ibilbidea 0:20:33 minutuan egin zuen Saratsako korrikalariak. 9,4 kilometroko ibilbidean berriz, Javier Nagore Arizu iritsi zen lehengo helmugara, 0:30:29 minutuan amaitu zuen lasterketa Zizur Nagusiko korrikalariak eta nesketan berriz Maite Beregaña, 0:36:55 minutuan iritsi zen helmugara Uharteko Arakileko korrikalaria.

Buelta bat edo bi egiteaz gain, bikoteka egiteko aukera ere izan zen eta lasterketa nagusiaren aurretik, haurren lasterketak egin ziren, bertan, 97 haur elkartu ziren. Jende mordoz giro paregabe eta kirolaria osatu zen Lekunberrin.




Lekunberriko krosa.
Argazkia: Juan Antonio Garaikoetxea.

| Eskualdeko korrikalarien sailkapen orokorra (4km 700m) | | |
|--|------------|---------|
| IZEN-ABIZENAK | HERRIA | DENBORA |
| LOPEZ COBOS, JULEN | Lekunberri | 0:19:28 |
| ETXARRI, JONA ANDER | Lekunberri | 0:21:52 |
| MARTINICORENA MACHAIN, JUAN MARTIN | Lekunberri | 0:22:44 |
| AYESTARAN, LUCIA | Lekunberri | 0:22:51 |
| VELILLA, IRENE | Lekunberri | 0:23:16 |
| MITXAUS, IGOR | Lekunberri | 0:23:24 |
| GOIKOETXEA GOROSTEGI, JAIONE | Uitzi | 0:23:45 |
| LEOZ, IKER | Lekunberri | 0:24:03 |
| ALBEDI ARRUIZ, IÑAKI | Lekunberri | 0:24:24 |
| ALBENIZ, ANDREA | Lekunberri | 0:24:24 |
| AGIRREZABALA LIZIAGA, MAIDER | Lekunberri | 0:24:36 |
| VALENCIA MARTIARENA, JOSU | Lekunberri | 0:24:37 |
| OIARTZUN ARANGO, IÑAKI | Baraibar | 0:24:41 |
| OIARTZUN, JUNE | Baraibar | 0:24:46 |
| VICENTE ALKORTA, LUAR | Lekunberri | 0:24:52 |
| ZABALETA, UXUE | Lekunberri | 0:25:01 |
| GARCIA, MONICA | Lekunberri | 0:25:01 |
| LARREINA, LEIRE | Lekunberri | 0:27:36 |
| ETXARRI BOTELLO, MIREN | Lekunberri | 0:27:41 |
| LANDA SUCUNZA, AMAIA | Lekunberri | 0:27:41 |
| GOIKOETXEA GOROSTEGI, AITZIBER | Aldatz | 0:27:43 |
| BERNAL GOIKOETXEA, GARBIÑE | Gorriti | 0:27:43 |
| ORDOQUI, JOSEBA | Lekunberri | 0:27:56 |
| JULIAN ROLLO, MARI JOSE | Lekunberri | 0:30:09 |

| Eskualdeko korrikalarien sailkapen orokorra (9km 400m) | | |
|--|------------|---------|
| IZEN-ABIZENAK | HERRIA | DENBORA |
| AMATRIAIN ARRAIZA, RAÚL | Uitzi | 0:30:36 |
| LASARTE GARCIA, IÑIGO | Lekunberri | 0:31:48 |
| DE CARLOS GORRIA, MIKEL | Lekunberri | 0:33:49 |
| ELIZALDE ZUBILLAGA, ANDER | Betelu | 0:33:49 |
| OLLETA, ANGEL | Gorriti | 0:38:29 |
| SOROA, ORGI | Lekunberri | 0:39:07 |
| BALDA, ANDER | Lekunberri | 0:39:25 |
| ELETA LOPEZ, ASIER | Lekunberri | 0:39:43 |
| SOTIL BULDAIN, MADDI | Betelu | 0:39:55 |
| SARALEGI, ENEKO | Errazkin | 0:39:55 |
| BULDAIN, HODEI | Lekunberri | 0:40:37 |
| IJURKO, AIMAR | Lekunberri | 0:40:55 |
| MIKEO, ANDER | Lekunberri | 0:41:44 |
| AYESTARAN, PABLO | Lekunberri | 0:41:50 |
| ESTANGA ARRIZUBIETA, IMANOL | Lekunberri | 0:41:52 |
| ALDAREGIA OLAETXEA, IBAI | Lekunberri | 0:42:46 |
| LASARTE GARCIA, XABIER | Lekunberri | 0:42:59 |
| GARAIOETXEA ZUBILLAGA, MATTIE | Betelu | 0:43:30 |
| RUIZ, IÑIGO | Lekunberri | 0:43:42 |
| ELIZALDE ZUBILLAGA, ASIER | Betelu | 0:43:53 |
| BALDA ARRIZUBIETA, AMAIA | Lekunberri | 0:44:31 |
| ESTANGA ARANBARRI, AIMAR | Lekunberri | 0:45:49 |
| MERINO LIZARRAGA, JOSEBA | Lekunberri | 0:46:42 |

| Erreleboen sailkapen orokorra | |
|-------------------------------|---------|
| AZCUE VIGOR, AYRTON | 0:33:51 |
| PASCUAL GARJON, ANE | 0:33:51 |
| GARCIA, NOEMI | 0:37:16 |
| PEREZ, UNAI | 0:37:16 |
| GURREA PRADOS, IÑIGO | 0:44:31 |
| BALDA ARRIZUBIETA, NAIARA | 0:44:31 |
| AZPEITIA, AINHOA | 0:48:47 |
| EIZAGIRRE, ANDONI | 0:48:47 |

| Kadeteen sailkapen orokorra | | |
|-----------------------------|------------|---------|
| IZEN-ABIZENAK | HERRIA | DENBORA |
| OLLETA BERNA, ADAI | Gorriti | 0:17:22 |
| ALBENIZ BALDA, MARKEL | Lekunberri | 0:22:11 |
| IJURKO, EGOI | Lekunberri | 0:04:49 |
| ALBENIZ, ANDREA | Lekunberri | 0:24:24 |
| NABASCUES, LOREA | Lekunberri | 0:24:42 |



Euskal duatloi txapelketak dagoeneko baditu finalistak

Finalera sartzeko kanporaketa martxoaren 23an gauzatu zen Tolosako zezen plazan 18:00etatik aurrera, bertan, Ugaiz Mugartza, Ibai Soroa, Oier Kañamares, Arkaitz Jauregi, Suhari Rodríguez eta Xabier Zaldia izendatu ziren txapelketako finalistak. Txapela lortzeko lehiatuko dira apirilaren 21ean, berriro ere Tolosako zezen plazan. Ugaiz Mugerzak finalera sartzeko lehiako denbora hobereana lortu zuen, izan ere 14 minutu eta 20 segunduan amaitu zuen proba. Txapelkun izan zen 2022an eta aurten aurreko edizioako bost finalistekin neurtuko da, Eneko Saralegiarekin izan ezik, aurten ez baitu txapelketan parte hartuko. Ibai Soroa bigarren sailkatu zen (15:14), ondoren Oier Kañamares (15:34), Arkaitz Jauregi (16:15), Suhari Rodríguez (16:30) eta Xabier Zaldia (16:38).



Ugaiz Mugerza, Ibai Soroa, Oier Kañamares, Arkaitz Jauregi, Suhari Rodríguez y Xabier Zaldia finalistak.

Pazientzia

Hitz horrekin bakarrik esana legoke dena. Pixka bat garatuko dut ordea. Sentipena dut nire ezinegonaren arrazoia nagusienetako bat pazientzia eza dela, dena momentuan nahi izate hori. Udaberria iritsi den honetan ordea, inguruak oroitarazten dit prozesuek bere eritimoa behar dutela, bere denborak.

Interneten garaiko ajea izango da agian, airean dabilen ideia delako momentuan nahi dugun hori momentuan izan dezakegula, klik bakarrera. Telefonoak ere badakar hori, nahi duzunarekin nahi duzunean egoteko ustezko botere hori. Baina sakonago ere ikus ditzaket arrazoiak, beti hobetzen egon behar hori, emaitzak lortu beharra, lortze horrek bideaz gutxiago gozatzearen eragina nola duen.

Ohartua nago gizartearen denborak naturaren antzekoak direla ere, haziak landatu (barnean eta kanpoan), horiek zaindu eta elikatu, hazten ikusi, fruituak dastatu, berriro egokitu, ber-egokitu... Emaitza nahi izatearen antsietatea ere kaltegarri zait sarri.

Hiriaren argiak etxeraino iristen zaizkigun garai honetan, gure inguruko herrietan bizitzeak ere pazientzia berezi bat eskatzen duela argi dago, inguruarekin harremanetarako, pertsonekin, eritimoekin, soinuekin... Inguruarekin lanean dabilenak hori ongi dakielako iruditzen zait, baina ni gutxi nago inguruarekin kontaktuan eta pazientzia galtzen dut sarri, gauza gutxi pasako balira bezala...

Nire buruari pazientzia garatzea opa diot ba, ekintza bakoitzari behar duen denbora eskaintzeko, egun bakoitza bere ezauzgarriekin bizitzeko, emozioei ere beren denbora emateko, poza, tristura, haserrea... Gutxiago gustatzen zaizkidan lanak egiteko pazientzia ere, hala nola garbiketa, zaintza, ikastea... Eta pazientzia nire buruarekin egoteko, ongi nagoen edo ez sentitzeko, erabakiak lasai hartzeko. Pazientzia ulertzeko bideak intentsitate ezberdinak dituela eta denak direla beharrezko, beraz, pazientziaren aurrera!





Erabakiak eta hautaketak

**Batzuetan blokeatu egin gaitzake zerbait erabaki behar dugunean, nahiz eta erabaki hori garrantzitsua ez izan: zein arropa janzten dut? Zein karre-
ra aukeratzen dut? Aita/ama izan nahi dut? Zalantzia izateak hainbat
agertoki izan ditzake atzean; gaur, horren atzean egon daitezkeen arra-
zoiak aztertuko ditugu.**



**Zer gertatzen zaigu erabakiak har-
tu behar ditugunean:**

1

**Erantzukizunak hartzeko beldur-
ra:** gure ekintzen erantzukizuna
geure gain hartzea positiboa da, bai-
na erabakitzeaz arduratzea eta gure
erabakiek izango dituzten ondorio-
ez antzietatea sor diezaguke, eta
blokeatu ere egin gaitzake. Eraba-
kiak hartzean, normala da aztertzea,
zalantza jartzea eta larritasuna senti-
tzea. Antzietatea ez da berez arazo
bat, baina garrantzitsua da adi ego-
tea, gure erabakia erabaki ez dezan.

2

Beste aukera batzuei uko egitea:
erabakitzeak beti ekarriko du uko
egitea. Askotan ez dugu lortzen sor-
tzen digun ahalegin guztia ulertzea
edo ulertzea, maila inkontzientean
uko egiten baitiogu uko egitearen
inplikazioak onartzeari: galerak.
Izan ere, edozein erabakik zerbait
atzean uztea dakar, zerbait galtzea
(batzuetan inporta zaigu eta beste
batzuetan ez).

3

Idealak itxarotea: aurrekoari lotua,
zerbait aukeratzen ari garen unean,
eta, beraz, beste zerbaiti uko eginez,
aukera hori perfektua izatea espero
dugu. Zero galera edo sentsazio hori
izatera eramango gaituen alternatiba
aurkitzea espero dugu. Hor egon dai-
teke blokeoa.

4

Errua ez sentitzea: gure erabakiek
besteei edo geure buruari kalte egin-
go dieten ustetik sortzen da errua
hautemateko beldurra. Beldur horrek
larritasun handia sor dezake gutariko
gehienengan. Erabaki batengatik
sufritu edo jasanarazi dezakeguna
pentsatze hutsak, erabaki hori har-
tzea are zailagoa bihurtzen du.

5

**Gainontzekoen iritziari garrantzia
ematea:** batzuetan garrantzi han-
diegia ematen diogu besteek gure
egoeraz pentsatzen dutenari. Horrek
gainerakoei kalte egingo ote dien
pentsatzeaz gain, hori ingurunean
egokitzeko beharretik etor daiteke,
bartzertuta sentitu nahi ez izatetik.
Baina kontuan izan erabaki horren
ondorio guztiekin biziko den per-
sona bakarra zu zeu izango zarela,
ez al da hobe izango lehendabizi zu-
gan arreta jartzea?

6

Kontrol-sentsazioa: dena kon-
trolpean eduki nahi dugu, eta hori
ezinezkoa da. Aukeratu ahal izateko
jardun aurretik erabat ziur egon be-
har dudala pentsatzea, gertatuko
zaigunaren erabateko ziurtasuna izan
nahi izatea. Jarrera horretan bagau-
de, ezingo dugu aurrera egin, ezin
baitugu dena kontrolatu. Hartutako
erabakiarekin ondo joango zaiguna-
ren informazio eta segurtasun osoa
izan nahi izatea, baina oraingoz etor-
kizuna ikusi ezin dugunez, hori ere
ezinezkoa da.

Kontuan izan erabaki bakoitza gogo
batekin, informazio batekin, laguntza
batekin, konpainia batekin, zirkun-
stantzia jakin batzuekin... hartzen
dela. Denborarekin, hori guztia alda
daiteke, eta erabakia okerra iruditu
dakizuke, baina ulergarria eta enpati-
koa izan zaitez iraganeko ni horrekin,
zeinak une horretarako egokiena iru-
ditzen zitzaiona erabaki baitzuen.





BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.


Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

German Lasarte
HARATEGIA
Aralar kalea 8
Lekunberri
948504157

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Mallu



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

●● Elena Irigoien Arbizu (Leitza). Mimukai

“Proiektuak loratzeko toki bat da Mimukai”

Mimukai izeneko proiektu berritzaile bat sortu da, Cederna Garalurrek, Mendialdeako Udalekin (Arano, Goizueta, Areso, Leitza, Araitz, Betelu, Larraun, Lekunberri, Imotz eta Basaburua) eta Plazaola Partzuergo Turistikoarekin elkarlanean. Tokiko ekonomia eta elkarlana bultzatu eta sustatzeko helburuarekin, proiektu interesgarri honek zerbitzu eta baliabide ugari eskaintzen ditu ekintzaileentzat, enpresentzat eta komunitatearentzat.



Elena Irigoien koordinatzailea Mimukaien.

Zer da Mimukai? Zerk bultzatzen du proiektu hau?

Mimukai topagune bat da, Leitzatik sortua eta bertan kokatua, baina eskualde mailarako landu da hasieratik, inguruko proiektuak gauzatzeko eta elkartzeko. Zonan dauden beharrak arlo sozioekonomikotik betetzeko edo erantzun bat emateko sortu da.

Kolaboratzaile edo laguntzailerik dauka proiektuak? Hala bada, zein edo zeintzuk dira?

Proiektua udalarekin elkarlanean sortu da, hori oso garrantzitsua da, izan ere,

eskualdeko udalen laguntzarik gabe ezingo litzateke proiektua aurrera eramanez, Cederna Garalur eta Plazaola Partzuergo Turistikoaren artean egindako elkarlanaren bitartez eta Nafarroako gobernuaren finantzazioari esker.

Zein zerbitzu eta baliabide eskaintzen dizkiezue ekintzaileei eta, oro har, tokiko komunitateari?

400 m² dituen espazio irekia eskaintzen dugu, bertan 20 lanpostu daude, gehi beste hamar “erlauntza” deitzen diogun gunea, nolabait arreta berezia eskatzen duten lanak egin

ahal izateko. Gero 54 m² inguruko formakuntza gela eskaintzen dugu, 20 pertsonarentzako egokituta dena, pantaila Smart TV batekin. Hortaz aparte, 30 m² dituen bi bilera gela eskaintzen ditugu: enpresei alokatzeko, guk bilerak egiteko, elkarteek bilerak egiteko eta bertan lasai hitz egin ahal izateko. Eta gero lau bulego gela daude eskuragai 26-28 m² ingurukoak.

Tarifetan aukera desberdinak daude, egun baterako etorriko diren “Coworkerentzat”. Bertan ongietorriak dira: langileak, ekintzaileak, enpresa txi-

“Aukerak eskaintzeak bultzatzen du proiektu hau”

kiak, etab. Ikasteko espazio egokia ere eskaintzen dugu: unibertsitatean, masterrak ikasten edo oposizioak prestatzen ari diren pertsonentzat leku aproposa da. Aipagarria ere da, giltzatu ahal diren armairuak eskaintzen ditugula elkarreentzat edo enpresentzat, “Coworking” espaziotik aparte. Beste gune honetan, komoda daukan mahai bat, Internet konexioa, berogailua eta bazkaldu ahal izateko edo elkarren artean sareak sortzeko sukalde bat dago.

Nola laguntzen du Mimukaik tokiko ekonomia modu laguntzaile eta parte-hartzailean bultzatzen?

Honetarako, ekintza desberdinak eskaintzen laguntzea da helburu, topagune bat izateko eta elkarlanean sortu ahal izateko. Elkarrekin gaude harreman horretan, bai enpresa eta proiektuen topagune bat izatea nahi dugu, eta horretarako enpresek jarri behar gara harremanetan ikusteko ze beharrak dauden nolabait on sinergiak biltzeko.

Zein dira abian jartzeko eta martxan jartzeko aurrez aurre jarri dituzuen erronka nagusiak?

Aktibazio plana martxan jartzea modu aktiboan. Aurreko urtean martxan jarri genuen, baina hasiera ez da hain erraza izan. Dagoeneko



MIMUKAI
garapen zentroa



“Osatzen ari gara momentu honetan, baina sareak sortzea oso garrantzitsua da guretzat”

lantalde osatua daukagu. Lehen garapen agente bat bakarrik zegoen eta momentu honetan, proiektuko koordinatzailea dago, ni naizena kasu honetan, eta garapen agentea Ainhoa Oribe da, baita Andoni Mitxaus energia eta industria arloak eramaten dituen arduraduna eta Elikadura sistema kudeatzen duen Amaier Unzueta teknikaria. Beste alde batetik, merkataritza Cedernan dagoen zerbitzu batetik lantzen dugu, ez da bakarrik eskualderako baina Andoni Martin gai hori lantzen aritzen da. Eta bukatzeko, turismo arloa martxan daukagu Plazaola Partzuergo Turistikoarekin eta Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Plana, Irati Lure Cederna Garalurreko teknikaria. Alde hori osatzen joan behar gara kontzeptu desberdinak lantzeko eta hainbat proiektu martxan jartzeko.

Nolakoa izan da tokiko komunitatearen erantzuna eta parte-hartzea eskaintzako jardueraren zerbizuetan?

Hasierako parte-hartze prozesuetan oso ona izan da, udalaren aldetik ba-

bes paregabea, beraien laguntzarik gabe ezin izango genuke hau aurrera eramanez. Beste alde batetik, herritarrek ere pozik daudela dirudi.

Zein dira orain arte sortu diren proiekturik aipagarrienak edo arrakastatsuenak?

Elikadura sistemaren proiektua duarik gabe, 2019an eskualdeko 10 udalek eta Cederna Garalurrek martxan jarri zutela. Ondoren Leitza sortu den lanerako espazioa. Ondoren sortu dira eta sortzen ari dira proiektu interesgarriak. Hortik sortu da Mimukai eta eredu hori dago,

bertan daude inplikaturako arlo guztiak.

Zein dira etorkizuneko planak hedapenari, proiektu berriei eta helburuei dagokienez?

Proiektua sendotzea, espazio erabilgarria izatea, zerbitzuak jendearen beharretara egokitzea eta bertatik formakuntzak sortu eta eskaintzea. Izan ere, bertako topagune moduan funtzionatzea nahi dugu. Sareak bultzatzea eta eskualde mailan beste hainbat proiektu identifikatzea gustatuko litzaiguke, modu honetan, interesgarriak edo interesa sortzen duten proiektuak bultzatzeko.

CONSTRUCCIONES
ERAKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERAKINEN ZAHARBERRITZEA
665 708 683
Lekunberri

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

Construcciones
Gañarbe

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri
📧 construccionsganarbe@gmail.com
☎ 616 457 540
☎ 636 827 846

Egin errenta aitortpena euskaraz!

2023ko Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina abiaraziko dute aurten ere UEMAK eta hainbat erakunde publikok, elkarlanean. Epea, Nafarroan, apirilaren 9an abiatuko da eta ekainaren 27an amaituko da.

Autolikidazio proposamena

Jasotako proposamena onartzerakoan, telefonoz zein Internet bidez, euskaraz egin nahi duzula esan, eta aurrerantzean ogasunak agiriak euskaraz bidaliko dizkizu.

Mekanizatua

- ▶ Hitzordua hartzerakoan, adieraz ezazu ogasunarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzula.
- ▶ Horrela eskatuz gero, ogasunarekin harremana euskaraz izan dezakezu, bai aurrez aurre, eta bai telefonoz zein Internet bidez ere.
- ▶ Ogasunak sinatzeko ematen dizun orria ere euskaraz jaso dezakezu.

Internet bidezkoa

- ▶ Errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi Internetetik eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara hautatu.
- ▶ Aholkularitzaren bat aukeratzen baduzu, berriaz adierazi beharko duzu aitortpena euskaraz egin nahi duzula.
- ▶ Beste modu batean egin baduzu (finantza erakunde batean, esaterako), euskaraz egiteko eska dezakezu.

ERRENTA AITORTPENA EUSKARAZ

2023ko errenta aitortzeno kanpaina
Internet bidez, aholkularitzan, telefonoz... Aurten ere, **errenta aitortpena euskaraz!**

AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA
Jasotako proposamena onartzerakoan, **TELEFONAZ ZEIN INTERNET BIDEZ**, euskaraz egin nahi duzula esan, eta aurrerantzean ogasunak agiriak euskaraz bidaliko dizkizu.

MEKANIZATUA
• Hitzordua hartzerakoan, adieraz ezazu ogasunarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzula.
• Horrela eskatuz gero, ogasunarekin harremana euskaraz izan dezakezu, bai aurrez aurre, eta bai telefonoz zein Internet bidez ere.
• Ogasunak sinatzeko ematen dizun orria ere euskaraz jaso dezakezu.

INTERNET BIDEZKOA
• Errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi Internetetik eta **HOBETSITAKO HIZKUNTZA** atalean euskara hautatu.
• Aholkularitzaren bat aukeratzen baduzu, berriaz adierazi beharko duzu aitortpena euskaraz egin nahi duzula.
• Beste modu batean egin baduzu (finantza erakunde batean, esaterako), euskaraz egiteko eska dezakezu.



AGENDA

APIRILA

2-5 - 9:00-13:00 eta goizeko gela 8:00-9:00 Pazko-asteko ludoteka, Lekunberrin Ibarberri ikastetxean.

3 - Euskal Herriko itzulia pasako da 14:34 Uitzu, 14:45 Lekunberri, 14:49 Alli, 14:53 Astiz, 14:57 Oderitz eta 15:00 Madoztik.

6 - Kinto Eguna, egun osoan zehar. 14:00 Bazkari autogestionatua, ondorengo Bingoa, 18:00 Distopia elektrotzaranga eta 00:00 DJ Izzei & Eneko. Dena Lekunberriko frontoian.

12 - 18:00 "Elikadurarekin negoziarik ez", hitzaldia Beteluko udaletxean.

14 - 12:00 "Yala Nafarroa Palestinarekin", Palestinaren aldeko goiza egingo da, bertan Herri kirolak, Josetxo harri-jasotzailea, dantzariak, abesbatza, ekitaldia eta jatekoa eta edatekoa izango da, Beteluko plazan.

16 - Erromesaldia Done Engrazia Baselizan, Uitzin.

19 - 18:30 "Esnatze Basa" (Maite Aizpurua) eta "Arrazoiak" (Saioa Alkaiza), liburuen aurkezpena Gabari Gune Irekian.

20 - 10:00-13:00 Zure inguruko landareak ezagutzea, Gabari gune irekian. 16:30 Euskaraz bai, Munduko Jolasak Errazkinean. "Matatech", Lekunberrin (Mataderoan)

21 - Mendialdeko feria ibiltaria Arriben

23 - 18:30 Literatura solasaldia "Ez erran inori", Lekunberriko Mitxausean.

25 - 18:00-20:00 Zure inguruko landareak ezagutzea II, Gabari Gune Irekian.

26 - 18:30 Mailoperen kimu berriak ernatzeko batzar nagusia, Araitzko udaletxean.

27 - 10:00-13:00 Zure inguruko landareak ezagutzea III, toki iragarriko da. - 17:30 Ipuin kontalaria, Etxarrin.

28 - Tuttureren mendi irteera (Euskal Herriko Urmuga)

MAIATZA

4-5 - 10:00etatik aurrera "Farrufest 2024" batukada jaialdia Lekunberrin.

MERKATU TXIKIA

LAN ESKAINTZA - Administratibo komertziala bilatzen ari dira BELCA enpresan. Interesik baduzu, jarri harremanetan: recursoshumanos@belcafims.es

Zer irakurri nahiko zenuke MAILOPEN?

Batzar nagusia
Apirilak 26
Araizko udaletxean, 18:30ean

PUBLIZITATEA MAILOPEN

Labrit Multimedia 948 210 103
mailope@labrit.net

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldiro eskaintza bereziak

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARRITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPOTZEA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotaledea 19,
Lekunberri
MARTILLO TXIKI
FORNIDU ESTADIA
www.martillotxiki.com
679 938 016

SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

ekin
rotulacion
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-jatetxea
Arribe
948 51 31 34

TAXILON
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com
Lontxo Otamendi Artola
Atallu - Araitz

Iñigo Garaioa
MARCOLARIA
696 658 288
LEKUNBERRI

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

Albaitaritza

baserritarren
zerbitzura



JARRI
KONTAKTUAN